

**Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren X. Astea**

# 'The Stormriders' filmaren estreinaldiak itxiko du astea

Film laburren sari banaketa egingo da Antzoki Zaharrean

Gorka Erostarbe / Donostia

Hamar egun iraun du Beldurrezko Asteak, eta gaur egingo ditu azken urratsak. Gaur izango du azken gaua, eta iaz Hong Kongen gehien ikusi zen filma estreinatuko dute gurean: Andrew Lau-

ren *The Stormriders*. Aurretik film laburren lehiaketan nor gailendu den jakinaraziko dute. Ondoren, sariak banatu eta lan sarituak pantailaratuko dira. Asteari amaiera emateko, Alaska kantariaren Fangoria taldeak joko du Egiako kultur etxean.



The Stormriders filmeko efektu bereziak oso aipatuak izan dira.

ASKOK jakiminez espero zuten film batekin itxiko da Donostiako Beldurrezko Zinemaren Astea gaur. Abentura, beldurra, abiadura, eta, oroz gainetik, efektu bereziak. Horixe da *The Stormriders* filma hainbeste jendek ikusi izanaren arrazoia. Andrew Lau orain dela bi urte filmatu zuen, eta iaz Hong Kongen ikusle gehien erakarri zuen lana izan zen. Hortik datorkio sona. Kontutan izan behar da, gainera, Hong Kong ez dela hiririk egokiena efektu bereziko filmez hitz egiten hasten bagara. Han harridura sortu duen lan hori hemen askoz ikusgarriago irudituko zaigula ziurta liteke.

## Hogei film labur lehiatzen

Aurretik irabazleen izenak emango ditu epaimahaiak. Hamar egunetan bistaratu diren hogei film laburren artean aukeratu beharko dute epaileek eta, antza, lanak emango dizkie horrek, antolatzaileen esanetan orain arteko film laburren eskaintza onena izan baita aurtengoa. Hain zuzen, film laburren lehiaketa da

Donostiako zinemaldi honek duen altxorra, berau baita Europako prestijiosuenetako bat.

Arratsaldean, egitarauko azken *manga* —marrakzi bizidun japoniarrak, alegia— bistaratuko da: Shuseko Kanekoren *Gamera 3. Revenge of Iris*.

Jaialdia amaitzeko, halaber, Fangoria musika taldeak joko du Jareño kultur etxean, gauerdian —sarteko gonbidapena eskuratu beharko da—. Alaskak gidatzen duen talde horrek azken diskoa aurkeztuko du.

### gaurko egitaraua

#### ANTZOKI ZAHARRA

17:00etan

*Spriggan*, (Hirosugu Kawasaki, 1998)

*Gamera 3. Revenge of Iris*, (Shuseko Kaneko, 1999)

21:00etan

Film labur irabazleak

*The Stormriders* (Andrew Lau, 1998)

#### JAREÑO KULTUR ETXEA

00:00etan

Fangoriaren kontzertua

## BAT soziolinguistika aldizkaria

### 31. alea kalean!

Euskararen aldeko gizarte-mugimendua eta EKB, azken 25 urteak gainbegiratu

J. Naberan, F. Muniozguren, J.M. Odriozola, Paulo Agirrebaltzategi, J.M. Torrealdai, Xabier Mendiguren Bereziartu, Jagoba Zulueta, Mattin Irigoien, Iñaki Etxezarreta, Sagrario Aleman.

**Egin zaitetz harpide!**

### espantukeriak

## Tintaz, eskuz, eginiko kartel horiek...

Begoña del Teso

Gaur bertan bueltatuko dira, ilunabar aldera, 10 egunez gurekin bizi eta hil diren (dituzten) izakiak. Itzuliko dira hilobietara edo aro guztietako iluntasunera. Akabatuko dira odoljarioak eta algara nerbioak. Akabo buiak eta erronkak. Akabo laburrak, akabo maratoiak. Agur t'ardi munstro gureak, Deabruak eginak denok gara...

Amaituko dira Kale Nagusian entzun diren orroak, sumatu ditugun sorginen arteko desafioak. Orain arte etenda izan diren debekuak indarrean izango ditugu aretoetan. Ezingo dugu oihu, txistu, negar, berba egin. Ezingo dugu erre. Ezingo dugu jan. Ezingo dugu zurrunga egin. Ezingo dugu zuzendari baten burua eskatu ezta gustuko ez dugun aktoreari herio mehatxurik egin... Bai pena, bai suerte txarra gurea...

Kartelak baino ez dira geratuko. Ez oraingo pelikuletako afixak, joan ziren garaiak baizik. Zinema mexi-

karreko gutziak dastatu genituenean ezagutu genituen horiek, Rogelio Agrasanchez zinema ikerlari-merkatari eta tratariak azaldu eta saldu zuen liburu ederrean zeuden horiek. Eskuz, tintaz, kolore biziz, esaldi biribilez, magia handiz, malizia sakonez, justizia handiz, malura ederraz margotutako horiek. Mamuz beterikoak, munstroz gainezka zeudenak. Aro hartan ez zen ordenagailurik. Lapitzak eta pinturak ziren tresnak. Tresnak baino gehiago, armak. Arma eder eta periloak, Izuaren zaporea zerien Antigoaleko kartel horiei.

Oroipen gehiago izango dugu aste honetan bildurik. Bai, noski. Dudan jartzea erel! Baina behatzen artean irauko digu kartel zahar eta ahalmentsu horien usainak, ukituak, erreliebe latza baina deliziosoa... Hildako guztiek ilunabar aldera bidaiari egingo diote; kartelak geratzen dira salbu gure begietan.

**Areto Nagusia**  
19:30

**JARDUNALDIAK**

**GABRIEL ARESTI, IDAZLE,  
EUSKALTZALE, PLAZAGIZONA.**  
(Bilbo, 1933-1975)

**Azaroak 8, astelehena**  
JON KORTAZAR: "Gabriel Arestiren mundua" erakusketaren gida  
ANJEL ZELAIETA: Gabriel Arestiren poeta bizitza

**Azaroak 9, asteartea**  
MASKARADA antzerkia: "Gabriel Aresti irakurria" Arestiren zenbait teatrolan, poesia eta bestelako testuen irakurketa, Maskarada teatro konpainiaren eskutik.

**Azaroak 10, asteazkena**  
Mahai ingurua: Gabriel Arestiren ekarpena eta eragina euskal literaturan.  
JOXE AZURMENDI, IÑAKI ALDEKOA eta IBON SARASOLA  
Mahaiaren gidari: ANDOLIN EGUZKITZA

BK Bidebarrieta Kulturgunea
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputazioaren Foru de Gasteiz